

ERASORAAAA!

EGILE EZEZAGUN BATEN
TESTU POETIKOAK EDO



(Kretazeoaren garaiko Olivetti batean
aurkituak)

© Marjinalia Bilduma
Lege-Gordailua: SS-0881/03

Hor entzuten du batek
bizitza loriosoa tantaka
erortzen zulora
osin lehorra besterik gelditzen ez den arte.

Egunen batean azkeneko hitzak
ahoskatuko ditudala pentsatzea ere!
Eta hortxe nire azkeneko lanak
oraindik ere argitaragabe...

Imajina ezazue puta bat
egiten duela egitena duena
baina ez diruagatikan.
Eta hori bera naiz ni.

Jainkoarren,
bizitza osoa igaro dut irakurtzen, idazten, itzultzen,
ikasten...
Ni bai koitadua!

ERASORAAA!

Kontuz ibili,
«Kaka-Putza» hirian
aske dabil eta.
Oleriaren indarrak
zure ipurditzuloko
puzker baten
adinako balioa du.
Kontuz ibili, beraz,
zeren «Kaka-Putza»
aske dabil-eta
zure hiri-putan zehar.
Niri ez galdetu ezer.
Apesto. Kiratsa darit...?
Zuri ere kiratsa darizu.
Izango da aberkideak garelako.
Ba al dakizu
zer pentsatzen dudan
aberiari buruz?
Sifilisa kutsatu zidanari buruz
pentsatzen dudanaxe.
Okey?
Badago gauza bat
ondoegi ulertu ez dudana:
aberi hitza entzunda
zergatik itzultzen duzue denok
"Euskal Herria"?
"patria" baino ez du esan nahi eta.
Ez, niri ez begiratu
pepelerdo aurpegi horrekin.
Ez bainaiz King-Kong.

Ze pedanteria, ezta?
"Ez bainaiz".
Joder! "Enaiz-ta!" "enazalako!".
Nahi duzuen, "ez bainaiz" izan ezik.
Barka, barrabiletan hazkura dudanean,
filologo galdua berpizten da nigan.
Inportako ez dizulakoan nago.
Baina inportako balizu ere... Pfffff.....
Niri, ezer gutxi...
King-Kong naiz, hil zorian.
Hiriko emakumeak (azkenik!) konturatu dira
King-Kong naizela (azken gorila erraldoi eta
baldarra!)
eta horregatik egiten dute ilara
bragak erantzita, negarrez,
beranduegi baita (orain bai, "baita").
O, Jainko jauna!
Zer dela-eta zara
horren kabroia?
ez al ditut zintzo-zintzo bete
zure agindu guztiak?
Hil egin dut,
pentsamenduz zein egitez bekatu egin dut,
ume jaioberriak "suizidaz" mozorrotu, argazkia
egin
eta kopiak zabaldu ditut benetakoak balira bezala
(CNN-ko kazetarien laguntzaz).
(Antena 3-ko kazetarien laguntzaz).
(Europako kazetarien laguntzaz).
Gauzak ondo doazkit.
Argentinan diru piloa irabazi dut.
Estatu Batuetan hiruzpalau enpresa erraldoi

[bidalita dauzkat popatik
hartzera].
Ezin naiz kexatu.
Putasemez inguraturik nago.
Giza enda ugaltzera noa,
putaseme faltaren premian
egon ez gaitzen.

Eta gero,
musu luuuuze bat
emango dizut
ipurdi zuloan.

Ziur nago gustatuko zaizula.
Petroetaraino nago,
horren guraso ona izateaz.

Zergatik ez dator inor ni salbatzeko?
Non daude Euskal Herriko emakumeak?
Soldata irabazten ala zer hostia?
Desfilatzen?
Bidezkoa dena exijitzen?
Bai, hori dena oso ondo dago.
Baina, eta ni zer?
.....

Tira, barre egizue.
Barre egizue,
nik bezala.

Une honetan, hain zuzen,
irakurleatariko batzuk txaloka hasten dira;
beste batzuek, berriz, masturbatzeko aprobetxatzen
dute.

Ez da harrigarria.
Soldadu guztiek jokatzen dute
[modu berean eta].

Ez dut erremediorik,
pepelerdoarena egitea izugarri gustatzen zait.
Horregatik, nire aitaginarrebari atsegin ematearren,
egin naiz haren alderdiko kide.

Bizitzan, holaxe dabilta gauzak.

Heriotzan... batek daki.

Jakingo dugu, ba,

Jainkoak lagun

(kabroi alu harek lagun!).

Gustatuko litzaidake

putatan joatea,

etxetik ihes egitea,

auzokoarekin ligatzen saiatzea,

japoniera piska bat ikastea...

Gustatuko litzaidake

oinetan zenbat behatz ditudan

idea putarik ez dudala

behin betiko onartzea.

Berariaz, gustatzen al zaizkizu autoak?

Niri ere bai.

Eta ba al dakizu zergatik?

Ipurtzuloa handi samarra dudalako.

Zeren errazagoa da gamelu bat

nire ipurditzulotikan kabitzea

aberats baten orratz zulotikan baino.

.....
Nola tematzen garen bizitzen,
bizitza aurrez-aurre edukita ere.

Irudika al dezakezue Popei

bere "damisela" bortxatzen,

jipoitzen?

Ba, gu, irudi hori bezain

patetikoak gara.
Irudika al dezakezue "Lodia" eta "Flakoa"
gela batean "amodioa egiten"?
Ba, gu, irudi hori bezain
patetikoak gara.
Dena batera idaztea
dut gogoko.
(lehen orritik azkeneraino).
Gutaz zerbait espero lezakeen
jainkotxoren bat
baino patetikoagoak gara.
Fazista guztiak
bitxiloreak biltzen
jarriko nituzke!
Natura, ondo dago
(desagertzeko zorian egotea
egokitu ez zaizunean).
Beranduegi
eta
goizegi
da.
Kartzela kirastun honetatik
ihes egin nahi nuke.
Gutaz zerbait espero duen
amarengandik
ihes egin nahi dut
(dirua irabazten dihardut,
erlauntzako eme liberatuarentzat).
Aspalditik ez nintzen
mozkortzen saiatzen.
Petroetaraino nago.
Non, non daude

Euskal Herriko sorginak?
Noiz onartu behar naute
ezinbesteko AKERTZAT?
Uste al dute, akaso,
niretzat erraza dela?
Joder! Kopetaraino nago
errudun izateaz!
Nik ere eskubidea dut
Brasilgo emagalduek
bezain birjinala, purua, izateko.
Ezin dut itzulpena luzaroagorik sufritu.
Gizon askea izan nahi dut,
baina emagalduek bideko hautsa
baino ez dut topatzen
nire oinetakoei atxikita.
Ama Birjina existituko balitz,
tokitxo bat gordeko lidake
bere ohantzean.
Hori ezin izan zuen
inoiz ulertu
Euskal Herriko apaizgoak.
Gustatzen zait
gustatzen zaidana.
Eta ia-ia beldurra ematen dit
kalera ateratzeak,
non zu zauden,
non gu eta gure oroitzapenak gauden.
Zerbait ulertzen baduzu,
adierazi niri, mesedez.
Izan ezin gaitezkeena da
itsu-itsuan irrikatzen duguna,
harik-eta norbaitek

gure atean jotzen duen arte:
poliziak, Herioak, behialako amoranteak,
behin bortxatzen saiatu ginen espektroak...

Whiskya bukatzen ari zait.

Inspiraziorik gabe geratuko banintz,
ez lidake hainbesteko axolarik emango.

Baina whiskya...

Telebistan, ia denek egiten dute negar
halako erraztasun batekin. Nor nahi dute
engainatu?

Aizu,

baimen ematen al didazu
zuri ostia pare bat emateko?

Ze ona zaren, maitea!

Poiing! poiing!

Orain, hobeto nago.

Kontxako badiak

bere betiko isla amorratuak
igortzen dizkit.

Arrantzaleak triste itzultzen dira

[etxera];

itsas kirolzaleak, berriz,

lehian ari dira

Espainiako urrea dela eta!

Baina nori inporta zaio

Espainiako urrea?

Euskaldun ustelduari akaso...

Arazoak al dituzu,

pepelerdo horrek?

Ba erosi 1.000 zaldiko

KOTXEA

eta Franco (badakizu, zure herria

suntsitu zuena) bezain bizirik
sentituko zara.
Gogoratzen al zara
"Hiria" ipuinaz,
Ray Bradbury-renaz?
Ba, hori da bidea
horrelako kasuetan.
Arrenkuraz beteta nagoelako.
Zuk sortu nauzu, Euskal Herri.
Orain ez hasi gaizki esaka,
munstro hau dela eta.
Zuk sortu nauzu,
Euskal Herri.
Egizu nitaz hobekien deritzozuna.
Baina nik, berriz ere,
gozatu nahi dut
neure gorputzaz,
neure idiosinkrasíaz,
neure idiotikrazíaz,
Nolatan erori gara horren baxu?
Zu, kabroi horrek,
ba al dakizu igeritan?
Esaidazu.
Esaidazu zergatik
den hain garrantzitsua
zerbait esatea.
Esaidazu.
Zergatik bizi zara horren ongi,
ni horren gaizki, horren penaturik
bizi naizelarik?
Begira,
putatxo horrek

Godolandiako Legionellarentzat abesten
zuen,
Golkoan petroliorik gabe geratuko ez baziren
(eta beste irtenbiderik ez zeukanean).
Zeren existentzia hostia-segida bat da.
Zenbat eta hostia gehiago eman,
orduan eta aukera handiagoak dituzu
Munduko txapelduna izateko.
Jaun-Andreok: zoazte pikotara.
Beharbada, zuen goren mailako jakinduriak
ez dizu umiliazio hau besterik gabe jasaten
[utziko].
Baina ez da nire errua.
Mundu honetan pepelerdo guztiek
badakite-eta mundua, biribila ez, baizik karratua
dela.
Koldarra bazara, praktika ezazu boxeoa.
Horixe esan zizun
nagusiak,
ezta?
Boing!boing!boing!.....
.....